

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko martxoarenaren 10a. VIII. urtea. 2.190. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Gaur egun erabiltzaile bakarra dago Ategiko eguneko zentroan. M.UGARTEMENDIA

Berastegiko eguneko zentroa ixteko arriskuan

Ategiko zentroak erabiltzaile bakarra du orain; Edurne Zubillaga arduradunaren hitzetan «bakardadea saihesteko» leku aproposa da **07**

Karrozen eta konpartsen inguruan neurri berriak hartuko ditu udalak

Amaitu berri diren Tolosako Inauteriak «oso onak» izan dira udalaren ustez; arlokako balantzea kaleratu du **02**

Ekitaldi ugari izango dira Emakumearen Eguna dela eta

Martxoaren 8a pasa bada ere asteburuan izango dira hitzordu gehienak; Villabonan argazki erakusketa bat jarri dute Aljibean **04**

Agirrebarrena eta Goio atxilotu ditu Frantziako poliziak

Bere aurkako euroaginduren berri eman ostean, Jon Goio tolosarra Seyssesekeo espetxean sartu dute **03**

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Amaitu berri diren Inauteriak «oso onak» izan dira Tolosako Udalarentzat

Ezbehar gutxi izan dira, eta txarangek jende asko bildu dute bai egunez eta baita gauzez ere

Itzea Urkizu

Tolosako Udalak egin du jada bukatu berri diren Inauterien balorazioa, eta «eguraldi paregabeak lagunduta», oso Inauteri onak izan direla nabarmendu dute.

Karrozak eta konpartsak

Aurten sekula baino parte-hartzaile gehiago izan dira karroza eta konpartsekin. Guztira 375 karroza eta konpartsa atera dira kalera eta «ez da nabarmentzeko moduko ezbeharririk izan». Umore eta imaginazioa izan da nagusi baina hurrengo urteko festei begira karrozetako bolumen altuari dagokionez erabaki berriak hartuko dituztela adierazi dute.

Txarangak

Hemeretzi txaranga izan dira guztira elkarteetatik atera direnak, eta txaranga profesionalak berriz zazpi izan dira. Inauterietako unerik jendetsuenak txaranga lagunduak izan dira betiko moduan, eta eguraldiak are gehiago lagundu du giro honetan. «Garbi dago Tolosako Inauterien ardatzetako bat direla, txarangen musika doinuek zerikusi zuzena baitute kalean eta zezen-plazan sortzen den giroan», dio udalaren balorazioak.

Kontzertuak

Aurten The Wailers talde jamai-karraren kontzertuak 3.000 pertsona bildu zituen Euskal Herria plazan. Hotzari aurre eginez, Zaldunita Bezperako gauean beste urte batzuetan izan ez den giroa sortu zen.

Astelentan berriz, euskal musika izan zen nagusi Plaza Berrian. Keiran eta Gatibuk gazte jendea bildu zuten, eta «arrakasta handia» izan zen. Honenbestez, aurreikuspenak bete direla adierazi dute eta «errepikatu beharreko ekimena izango da datorren urtean, kalitate bereko taldeak Inauterietara ekarriko».



Ostegun Gizenetik hasita giro aparta izan da Tolosan. A. IMAZ

Zezen-plaza

Segurtasun neurriak indartu egin dituzte aurten zezen-plazan, egun hauetan Tolosara etortzen den jende kopuruadela eta ezbeharririk gerta ez dadin. «Hartutako neurriek emaitza onak» eman dituztela nabarmendu dute udaletik, jarritako hesi bereziak direla eta. Beraz, zezenetako balorazioa ere ona izan da.

Garraioak eta trafikoa

Tolosako aparkaleku guztiak bete dira, batez ere Zaldunitan, iaz baino jende gehiago hurbildu baita.

Garraio publikoak ere bere aldetik arrakasta izan du eta Inauterietarako jarritako zerbitzu bereziak erabili ditu jende askok festara hurbiltzeko.

Osasuna

Aurreko urteetako larrialdi kopuru beretsua izan da aurtengoa, eta denera 65 lagun artatu dituzte. Udaltzainek ez dute istilu larriagirik izan, eta salaketak ohi-

koak izan dira, gehienak kartera, telefono eta antzekoen lapurretenak.

Zezen suzkoa

Egunez aldatu zuten aurtengorako zezen suzkoa, eta Astelentatik Ostegun Gizenera pasa zen. Ero Etxe Elkarteko antolatzaileak oso gustura ziren aurreko urtean baino askoz ere jende gehiago hurbildu baitzen.

Zerkausiko jantokia

Harrera «oso ona» izan du beste behin ere zerbitzu honek, baina udala zerbitzua hobetzen saiatuko da hurrengo urterako, Zerkausira joaten den jende guztia behar bezala artatzeko.

Garbiketa zerbitzua

46 lagun aritu dira lanean eta 47.250 kilo zabor bildu dituzte guztira.

Jendearen laguntza izan dute gainera, eta eskerrak eman nahi izan dituzte horregatik.

Igandera bitarte barrakak geltokian izango dira



Gaztetxo ugari hurbildu ziren barraketara. I. URKIZU

Itzea Urkizu

Inauterietan agur esan diegun arren, Tolosako haur eta gaztetxoek Piñata igandera bitarte aukera izango dute barraketan ibiltzeko.

Aurten udalak feriantekin sinaturiko akordioa dela eta, %40 merketu dituzte prezioak eta bono bereziak ere izan dira. Hau dela eta, aurten ez dituzte Inauteri ondorengo egunetan barraketako prezioak jaitziko.

Tolosa Kantariko bazkaria izango da hilaren 26an

Itzea Urkizu

Datorren martxoaren 26an Tolosa Kantari euskal kantu jira izango da.

Eguerdiko 12:00etan Tontokaletik abiatuko dira hileko azken larunbatero egiten duten moduan, eta udal txistulari banda izango dute lagun.

Ibilbidea egin ondoren, kantu bazkaria izango da Oargi elkartean, bazkalondan ere euskal kantak kantatzen jarraitzeko. Bazkaria Euskararen baitan ospatuko diren ekimenetako bat da, eta bazkarirako txartelak salgai dira jada. 20 euroko prezioa izango dute eta Xirimiri txokolategian, Elurra taberna, Babes taberna nahiz Amaroako Ekaitz taberna erosi daitezke.

Menua berriz, honakoa izango da: entsalada mistoa, bakailoa, kroketa, arroz esnea eta edaria. Bazkaltzeko lekua mugatua den aldetik, Tolosa Kantariko antolatzaileek bazkarirako txartelak ahalik eta azkarren erosteko gomendioa luzatu dute.

Bestealde, martxoaren 26an kantu jira-entseguak hilaren 10ean eta 24ean izango dira Musika Eskolan 20:00etatik aurrera.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Larrea auzoan etxebizitza berria alokatzen da. Sukaldea, jangela, egongela,

gela bat, bainugela bat eta trastelekua. 600 euro hilero. Gara-je itxiarekin nahi izanez gero 650 euro. 669 82 70 96.

Beti Alai
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



2009an Joseba eta Ibai Agirrebarrena eta Jon Goioeren atxilotketen aurrean manifestazioa burutu zen Tolosan. A.I.

Euroaginduaren berri eman ondoren espetxean sartu dute Jon Goio tolosarra

Joseba Agirrebarrena errefuxiatu lizartzarren semea atxilotu zuten herenegun Baionan

Asier Imaz

Frantziako polizia Jon Goio tolosarra atxilotu zuen herenegun Lapurdin. Goio atzeman aurretik, egun berean, Ibai Agirrebarrena gaztea atxilotu zuten Baionan. Errefuxiatu lizartzarren semea da Ibai Agirrebarrena.

Jon Goiori bere aurkako euroagindu eskaria zegoela jakinarazi zitoten eta, Seysseseko espetxean sartu zuten preso.

Ibai Agirrebarrenaren inguru-

ruan atzo ez zegoen informazio gehiago.

Aznar eta misilen afera

Jon Goio Gregorio Jimenez du berezko izena, eta Tolosan jaio zen, baina hainbat urte daramatza Lapurdin bizitzen. 2009an ere atxilotu zuten Goio, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aurrean aurkezteari uko egin ondoren.

Espainiako komunikabideek zabaldu dutenez, polizia iturriak aipatuz, Jose Maria Aznarren aurkako atentatu saiakeran parte hartu omen zuten Goio. Hauen esanetan, ETAK Espainiako presidente ohiaren aurka misilekin atentatu saiakerak egin omen zituen: «Hiru alditan saiatu ziren bere hegazkina botatzen, misilen bidez». Aznar eta misilen inguru-

ko afera Peio Olano lizartzarra atxilotu zutenean ere aipatu zuten. Bertsio ofizialetik haratago, ezzen misilik agertu.

Ordu batzuk lehenago, Frantziako polizia Ibai Agirrebarrena atxilotu zuen Baionako Espainia karrikan. Ondoren gaztearen etxea miaztera joan ziren Bidaxnera (Nafarroa Behera). Agirrebarrena lehenago ere eduki zuten atxilo hartuta: 2009ko ekainean atzeman zuten, beste hamaika lagunekin batera, kale erasoekin zerikusia izatea egotzita. Ia urtebete preso egon ondoren, iazko maiatzean utzi zuten aske, kontrol judizialpean.

Atxilotuen askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egitekoak ziren atzo 19:30ean, Tolosako Trianguloan.

Erabakitze eskubideari buruzko erakusketa Tolosan jarriko dute

Estreinaldia izango da eta Trianguloan jarriko dituzte argazki historikoak eta egunkarietako berriak

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Eusko Alderdi Jeltzaletik azaldu dutenez, Batu Gaitzezen ekimenak Tolosan izango du hitzordua asteburu honetan. Larunbatean, Tolosako Trianguloa plazan erabakitze eskubidea-

ren inguruko erakusketa estreinekoz ikusi ahal izango da.

Erakusketan, «azkeneko hamarkadetako hainbat une ga-

Erabakitze eskubidearen aldarriak izan duen ibilbidea islatu nahi dute

rrantzitsuetako argazkiak egongo dira erakusgai; batik bat, erabakitze eskubidearen inguruko gertakarietako zer ikusia dutenak» azaldu dute Tolosako EAJ

alderditik. Antolatzaileen asmoa, «erabakitze eskubidearen aldarriak izan duen ibilbidea» azpimarratzea izango da.

Erakusketan alde batetik, argazki historikoak egongo dira eta bestetik, egunkarietan argitaratu diren hainbat berri.

Erakusketaren bidez oroitzapena landu nahi dute antolatzaileek: «Hainbat eragilek eta EAJk urte hauetan zehar erabakitze eskubidearen alde egin duten lana ez da nolanhikoa izan, eta erakusketa honetan horrela islatzen da».

Bebe abeslariak kontzertua eskainiko du bihar

Leidor aretoan izango da emanaldia 20:30etik aurrera; oraindik sarrerak erosteko aukera dago

Erredakzioa Tolosa

Bebe abeslariak bihar, hilak 11, kontzertua eskainiko du Tolosako Leidor antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta sarrerak da www.kutxa.net helbidean eros-

daitezke, 30 eurotan. Horrez gain, Leidor aretoaren ordutegian salgai egongo dira, leihatilan.

Maria Nieves Rebollo Vila izena du Bebe artistak. Abeslari ezaguna egin da Espainian, sentimenduz betetako kantak eskainiz. Bi disko grabatu ditu: *Pafuera Telarañas (2004)* eta iaz argia ikusi zuen *Y. Bere abesti batzuk oso ezagunak egin dira, besteak beste: Malo, Ella edota Que nadie me levante la voz*. Orain, Tolosan zuzenean entzuteko aukera izango da.



Bebe abeslaria. HITZA


→ Laburrak

Katixa Agirrerren 'Habitat' liburua aztertuko dute gaur

TOLOSA › Galtzaundi Irakurle Taldeak Katixa Agirre idazlearen Habitat liburua aztertuko du gaur, hilak 10, Tolosako Kultur Etxean. Irakurle taldea 19:30ean elkartuko da eta jadanik irakurria duten liburu honen inguruan ariko dira hizketan. Irakurle taldetik herritarrak ere gonbidatu dituzte.

Lee Chang-dongen filma Zine Forumean

TOLOSA › Zine Forumaren baitan, Lee Chang-dong zuzendariren Shi (Olerkia) filma ikusteko aukera egongo da Leidor aretoan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean. Filma ez da ikusteko zaila, erritmo ona duelako eta istorioa naturaltasun handiz kontatzen delako. Baina gogorra da; gogoeta eginarazten du. 2010eko Canneseko zine jaialdian Gidoi Onenaren Saria irabazi zuen Lee Chang-dongen filmak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hutsunea Betez elkarteok argazki erakusketako atea zabaldu dituzte, Aljibean. E. MAIZ

Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko erakusketak eta hitzaldiak izango dira

Villabona eta Zizurkilaren erakusketak zabalik daude eta gaur emakumeen inguruko hitzaldiak izango dira

Eneritz Maiz

Aurten Tolosaldean Inauteriek bete-betean harrapatu dute Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta hori dela eta, eskualdeko herri askotan, Inauterien ostean ospatuko dute egun hau.

Areso eta Leitzan ere, asteburuari begira antolatu dituzte ekitaldiak. Areson bihar eta Leitzan larunbatean egun osoko festa egingo dute.

Asteartean egindako aldarrikapenez gain, Villabonako Hutsunea Betez elkarteak atzo argazki erakusketara inauguratu zuen Aljibean. Asteleheneetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta asteburuan, 11:00etatik 14:00etara.

Zizurkilaren ere Atxulondo kultur etxean erakusketak jarri dute. Kasu honetan, eskulan eta patch-

workeko taldeen lanak daude ikusgai.

Gaur hitzaldiak izango dira Villabonan eta Zizurkilaren. Villabonako hitzaldi-tailerra izango da eta gaztelerez egingo dute. Jorratuko duten gaia: *Oroitzapena eta ahaztea, zoriontasunaren giltzak* izango da. Hizlaria berriz, Ibon de la Cruz izango da.

Eta ostiralerako ikuskizun berezia prestatu dute: *Ikusi, entzun eta... bizi* emanaldia izango da Gurea Antzokian. Zuzenean, dantza, musika eta ipuina uztartuko dituzte.

↓ Egitaraua

GAUR

■ **Villabona.** *Oroitzapena eta ahaztea, zoriontasunaren giltzak* hitzaldi-tailerra gaztelerez izango da 18:00etan udaletxeko balioanitzeko gelan. Hizlaria, Ibon de la Cruz psikologoa izango da.

■ **Zizurkil.** *Atzerritik Euskal Herrira: Nola bizi dira atzerritar emakumeak Euskal Herrian?* hitzaldia 19:00etan Atxulondo Kultur Etxean. Hizlariak: Silvia Carrizo argentinarra (Malen Etxea elkarte kidea), Lucie Valentine afrikarra (Biltzen elkarte kidea), Ines Marnani bolibiarrak (Mujeres del mundo elkarte kidea), Fatima Nciri marokoa (SOS arrazakeriaren kolaboratzailea) eta Oihana Lopetegi euskalduna (Bilgune Feministako kidea). Moderatzaile lanetan: Maider Eizmendi kazetaria ariko da.

ERAKUSKETAK

■ **Villabona.** Argazki erakusketak Aljibean.

■ **Zizurkil.** Eskulan eta Patchworkeko taldeen erakusketak Atxulondo kultur etxean.

Zizurkilgo hitzaldia, *Atzerritik Euskal Herrira: Nola bizi dira atzerritar emakumeak Euskal Herrira?* izango da. Bost hizlari izango dira eta euskaldun bat eta lau atzerritar ariko dira Maider Eizmendi kazetariaren gidaritzapean.

Gainerakoan, bihar edo etzi, beste herrietan, afariak, hitzaldiak edo irteerak egingo dituzte.

Larunbatean herri programa osatzeko Joxe Arregi plazan elkartzeko dira

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo ezker abertzalea herri programaren osaketaren baitan beste fase batean sartzeri doa. Zizurkildar guztiei dei egiten diete larunbatean, 11:00etatik aurrera, Zizurkilgo Joxe Arregi plazara gerturatzeko. Bertan inkestak betetzeko aukera egongo da. Ekarpinak, iritziak eta kezak plazaratzeko gunea, luntxa... eta gerturatutako guztien artean «Zizurkil berpizteko lehenengo urratsa» emango dute.

Udalak Inkomunikazio eta torturaren aurkako mozioa onartu du

Erredakzioa Aduna

Adunako Udalak *Inkomunikaziorik ez! Torturarik ez!* mozioa onartu zuen hilaren 1ean. Aho batez, honakoa adierazi zuen: «Tortura kasu guztiekin amaitzeko esijentzia egiten diegu, ardura zuzenak dituzten erakunde, alderdi politiko eta polizia gorpuzte». «Torturaren amaiera inkomunikazioaren amaierarekin lotzen dugu». Beraz, honekin amaitzea eskatu zuten.

Hartu aisia BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako ERLAXATZEKO BONUA OPARI

EZAUGARRIAK:

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlaxatzeko masajea
- Igan de arratsaldetik ostiral eguerdira erabil daitezke

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**


Eskolarteko 24. Mendi Lehiaketa igandean

Oria eskualdean antolatzen den ibilaldi neurtua da. 9 eta 12 kilometroko bi ibilbide prestatu dituzte

E. Maiz Villabona

Igandean, hilaren 13an, 24. Eskolarteko Mendi Lehiaketaren barruan, Oria eskualdeko ibilbide neurtua izango da Villabonan.

Bi ibilbideak, Mallak plazatik abiatuko dira. 08:30etik 09:00etara izango da irteera ordua. Ibilbide motzak 9 kilometro izango ditu eta luzeak berriz, 12 kilometro. Luzeak, Villabona, Lastur, Mandabieta, Kanalak, Komizar, Erreka eta Villabona zeharkatuko




Plano honetan, ibilaldi neurtuak egiten duen zirkuitua ikus daiteke. HITZA

ditu. Motzak berriz, luzearen ibilbide bera izango du baina ez da Mandabieta eta Komizarretik pasako.

Izena emateko buletinak inguruko ikastetxe ezberdinetan ba-

natuta dituzte. Bertan agertzen dira argibide guztiak. Informazio gehiago nahi duenak, 649 71 71 82 telefono zenbakira deituz edo *aizkardi@aizkardi.com* helbidera idatziz lortu dezake.



Derghan Esnaeel Al-aingo ordezkaria eta Juan Manuel OIartzabal Alegiako zinegotzia anaitze ekitaldian. HITZA

Palestinari eta Saharari elkartasuna adieraziko diete etzi hainbat ekimenekin

Hormairudi bat margotzea, hitzaldia kultur etxean eta kontzertua Gaztetxean antolatu dituzte

Imanol Garcia Alegia

Alegia Palestinako Al-aingo errefuxiatuen eremuarekin eta Saharako Hagunia herriarekin anaituta dago. Herritar talde batek, Askapenaren eta udalaren laguntzarekin, elkartasun horri bultzada eman nahi dio alegiaren artean. Horrela, Palestinari eta Saharari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen antolatu dituzte etzira. Antolatzaileek azaldu dutenez, «herri mugimendu bat sortu nahi dugu elkartasunaren inguruan. Saharakoa eskualdean landuago dago, horre-

gatik Palestinaren inguruan talde bat sortu nahi da».

Etzi egingo den lehen ekimena hormairudi bat margotzea izango da, Palestinari eta Saharari elkartasuna adierazteko. Zubia eta eskolaren artean dagoen horman egingo dute. 09:00etan hasiko dira, bazkaldu bitartean amaitzeko asmoz. Antolatzaileek herritarren parte-hartzea eskatu dute. Antolatzaileek margoa eta brotxak eramango dituzte. Pare bat lagun izango dira bertan hormairudiak egiten eskarmentua dutenak laguntzaile moduan. Oraindik zehazteko dago zer margoturen artean. Horrela, Palestinari eta Saharari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen antolatu dituzte etzira.

Arratsaldean hitzaldia emanago dute Biladi Hadi brigada kulturalerako zenbait kidek. Aurreko udan izan ziren Palestinan, bertako egoera ezagutu eta palestina-

rrekin kultur trukea egiteko. Bidaia horren barruan anaitu ziren Alegia eta Al-aingo errefuxiatuen eremua. Biladi Hadiko kideek Palestinan biziutakoaren berri emango dute solasaldian. Kultur etxean izango da hitzaldia, 17:30ean hasita.


Gauean musikarentzako tartea izango da. 22:30ean hasita, bi taldek kontzertua emango dute Gaztetxean: Arramazka eta Kaskezur. Arramazka taldea Biladi Hadi brigadarekin batera izan zen eta Palestinan Rim Banna musikariarekin eta DAM taldekoekin abesti bat grabatu zuen. Kontzertuaren sarrerak bost euro balioko ditu.

Ekimen horiekin ere beste helburu bat badute antolatzaileek. Izan ere, Zestoan apirilaren 2an egingo den Euskal Herria Palestina Egunerara joateko deialdia egingo dute.



Joxe Manuel Garaialde eta Joxe Manuel OIartzabal Alegiako zinegotziak Haguniako alkatearekin. HITZA

Irudia



AKATSAK KARTELETAN

Tolosaldeko Euskararen Semaforoak bi kartel ofizialetan euskaraz dauden akatsak salatu ditu. Baliarrainen Espainiako Gobernuak finantziatutako obrakoan «Baliarriaingo», «1 hilabetea» eta «oineskoentzat» azaltzen dira. Ikaztegiaren Eusko Jaurlaritzak finantziatutakoan «execuzio» hitza agertzen da. **TOLOSALDEKO EUSKARAREN SEMAFOROA**

Eskualdekoek lautik hiru final irabazi dituzte Mungian eta Donezteben

Urretabizkia eta Otegi, Onsalo, Altuna eta Gaiurralde izan ziren bi txapelketetan finalak jokatu zituztenak

I. Garcia

Aurreko asteburuan pilota txapelketek ez dute etenik izan. Mungian eta Donezteben jokatu dira eta eskualdekoek lautik hiru partida irabazi dituzte. Erreka elkarteak antolatu duen IX. Malerreka Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren eta bertan eskualdeko partaidea izan zen. Intxurreko Urretabizkaia eta Otegi 22 urte azpikoetan irabazi zuten eta Aurrera Saizeko Onsalo aresoarrak maila nagusien Arraztoarekin batera txapela jantzi zuten.

Zazpi mailetan jokatu zen Malerreka txapelketa eta bi nagi-

sietan parte hartu zuten eskualdeko pilotariak. Urretabizkaia eta Otegi partida borrokatua izan zuten 22-21 irabazi baituzten Erreka elkarte Juanenea eta Zugarraldeko Lukinen aurka. Onsalok eta Txaruta elkarte Xabi Arraztoa iruritarrek aurrean bikote indartsua izan zuten. Esain profesional ohia, Buruz Gain elkarte ari dena, eta Erreka elkarte Joseba Madariaga arantzara izan ziren aurkariak. 22-16 irabazi zuten norgehiagoka.

Mungiako Torneoa

Asteburuan finalak jokatu diren beste txapelketa Mungiako Torneo izan da. Jubenilen mailan Zazpi Iturriko Joseba Gaiurralde amezketarrak Rezusta bergararrarekin batera 22-7 galdu zuen Elezkano II eta Larunberen aurka. Nagusien mailan Iñigo Altuna berrobitarrak Atxotegirekin batera 22-16 irabazi zuten Beitia-Urberuaga bikoteari.

Adinaren gorabeherak hizpide dituen antzezlan, igandean

'Aitona Matias' lanean Maia neskatoak bere aitonaarekin duen harremanaz hitz egingo dute



M.U. Leitza

Igande honetan *Aitona Matias* izeneko antzerkia ikusteko parada izanen da Leitzako zinean. Emaaldia 19:00etan izanen da.

Saioa Igualdako teatre NU taldeak eskainiko du eta Antton Olanu Irurtiak itzultitako lanean oinarrituta dago. Antzerki honek zaharren eta haurren arteko lotura afektiboak aztertzen ditu. Emaaldian zehar Maia izeneko

neskatoak kontatuko du bere aitona-ari zer gertatzen zaion. Berak nola ikusten duen eta nola bizi duen azalduko du. Maia adinean aurrera doan heinean eta ikasten ari den bitartean, aitona zahar zuzen da. Gainera, gauzak ahaztu ere egiten ditu. Familia osoarentzat egokia den lan bikaina ikusi ahal izanen da, hortaz, igande honetan. Alkek herritar guztiak animatu ditu antzezlan ikustera.

Ipuinak kontatzeko teknikak mintzagai

Jose Mari Karrere ipuin kontalaria hitzaldi bat emanen du ipuinak kontatzeko balia garriak diren teknikei buruz

kontalaria izanen da. Hitzaldian zehar ipuinak kontatzeko hainbat tekniken berri emanen du Karrerrek. Horretarako bideak zeintzuk diren, zein baliabide erabili daitezkeen eta baliabideak zein modutan erabili daitezkeen azalduko die bertaraten direnei.

Denok bat guraso elkarteak gaiarekiko interesa duen oro animatu nahi du hitzaldi honetara, bereziki gurasoentzat oso interesgarria eta baliagarria izan daitekeen hitzaldia baita. Beraientzat eguneroko kontua da ipuin kontaketena.

M.U. Leitza

Denok Bat guraso elkarteak *Ipuinak kontatzeko teknikak* izeneko hitzaldia antolatu du. Hitzaldia hilaren 15ean izanen da, eskolako jantokian. 17:00etan hasiko da eta hitzalaria Jose Mari Karrere ipuin

Berastegiko Ategiko eguneko zentroa ixteko arriskuan egon daiteke

Arduradunaren ustez, erabiltzaileek zentroarekiko duten «ikuspegi negatiboa» aldatzea beharrezkoa da

Maier Ugartemendia Berastegi

Berastegiko Ategiko eguneko zentroa ixteko arriskuan egon daiteke erabiltzaile falta dela eta. Eguneko zentroa 2007an jarri zen martxan. Berastegiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak herrian jende heldu asko ikusi eta hauek izan dezaketen bakardade-ari aurre egiteko aukera bezala ikusi zuten. Urte hauetan guztira bost erabiltzaile izan ditu eta ez berastegiarrak soilik. Gaur egun erabiltzaile bakarra du.

Gizarte zerbitzuetako ardura-duna den Edurne Zubillagak zerbitzu hau galtzea «pena» bat litzatekeela azaldu du. Izan ere, bertako udala zerbitzu kualifikatu bati amaiera emateaz gain, zerbitzuarekiko duen ahalmena galtzeko zorian dago. Egoera honek «galerak sortzen dizkio» udalari eta Diputazioari. Eguneko zentroaren ardura G.S.R kooperatibak du eta enpresa honi ekainean amaitzen zaio udalarekin duen hitzarmena. Data hau baino lehen erabiltzaile gehiago ez badago, Aldundiak ez dio udalari laguntzarik eskainiko zerbitzuarekin aurrera jarraitzeko. Eguneko zentroa ixten bada, zerbitzua ematen den solairuaren eskubideak diputazioarenak izango dira. Udalak



Udalak zerbitzuarekiko dituen ahalmenak galtzeko arriskua du. M.U.

zerbitzuarekiko dituen ahalmenak galduko ditu, Foru Aldundia izango delarik erabaki hauek hartuko dituen. Lokala eduki arren ezin izango lukete erabili Aldundiaren baimenik gabe. Hortaz, beharra sortutakoan, agian, udalak «ez du ahalmenik izango» zentroa zabalteko eta «beste herri batzuetara bideratu beharko litzuke erabiltzaileak».

Edurne Zubillagaren ustez, garrantzitsua jendeak eguneko zentroarekin duen ikuspegia aldatzea da. Zerbait «negatiboa» baliatzea bezala hartzen dute zaharrek eta senideek. «Ez da zaharren egoitza bat» bezala ikusi behar, bakardadea saihesteko eta denbora pasatzeko lekua bezala ikusi behar da. Egiaztaturik dago bertara joaten diren «zaharren bizi kalitatea asko hobetzen dela», bertan «lagun giroan, alaitasunean eta arreta osoarekin» egoten dira Zubillagaren hitzetan. Eguneko zentroak astelehenetik ostiralera eskaintzen du zerbitzua,

nahiz eta egunak erabiltzailearen beharera egokitu daitezkeen. Erabiltzaileen etxetara hurbiltzen dira gurgildun aulkientzat egokituta dagoen auto baten bidez. Bertan bazkaria eta arratsaldeko eskaintzen dituzte, eta prestatutako afaria etxera eramateko aukera ere badago. Erabiltzaileen baten interesa izango balu bainu egokituak dituzte bertan bainatzeko. Pertsona bakoitzari egokitutako hainbat jarduerak ere egiten dituzte. Zerbitzu hauen kostua eguneko 13 eurotako besterik ez da. Interesa duenak 943 68 36 20 telefono zenbakira dei dezake edo gzerbitzuak@berastegi.com idatz dezake.

Zentroa inguruko herrietako erabiltzaileek ere erabil dezakete. Zubillagaren ustez, «pena da horrelako aukera eduki eta ez aprobetxatzea». Gainera, herriarentzat ere ona da bertan lanpostuak sortzen baititu, eta erabiltzaile gehiago izanez gero lanpostu gehiago ere izango bailirateke.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



16°
7°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	17°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bebe abeslariaren kontzertua bihar Leidor aretoan 20:30ean.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak igandean Gorbeira joateko irteera antolatu du. Izena emateko gaur deitu behar da 943 67 56 12 telefono zenbakira 19:00etatik 21:00etara edo info@oargi.org helbidera idatzi. 08:00etan irtengo dira Tolosatik eta 09:30ean izango dira Barazar mendatean. 12:00etan irtengo dira Gorbeia aldera. Antolatzaileek ibilbide erraza dela argitu dute eta bidean atsedean hartuko dutela ere aurreratu dute. 14:00etan Mairulegorreta kobazulora joango dira eta beraz, linterna eramateko eskatu dute. 16:00etan iritsiko dira Murrutia herrira.

■ **Villabona.** Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira gaur 18:00etan *Oroitzapena eta ahaztea, zoriontasunaren giltzak* izeneko hitzaldi-tailerra izango da udal-etxeko ballonitzeko gelan. Ibon de la Cruz psikologoak eskainiko du ekitaldia eta gazte-eraz izango da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Inauterietako Argazki Lehiaketa



BAKEAREN PIPA ERRETZEN ARI OTE DIRA?

Bukatu dira Inauterietako argazki lehiaketarekin Tolosako jai nagusiak bizitzeko aukera daukazu oraindik. Argazkiak bidaltzeko azken eguna hilaren 18a izango da eta irabazlearen izena martxoaren 22an argitaratuko dugu. Irabazleak Tolosako Denak taberna lau laguntzako

afaria eskuratuko du. Argazkiak argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali behar dituzue, Idoia Iburgurenekin egin bezala. Idoiak *Bakearen pipa...*? bezala izendatu du irudia. Harpidedun bakoitzak bi argazki bidali ditzake gehienez, eta mezuan harpidedun kodea jarri behar da. Animatu eta parte hartu!

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak



sariduna



sarrerak



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Real Madrid
saskibalo partida

◦ Xabi Otegi (Tolosa)
Martxoak 10 ◦ Osteguna
20:30ean
Donostiako Ilunben



Sarrerak eskuratzeko HITZAKo bulegotik pasa